



Usurbilgo Udala



**TOKIKO GOBERNU BATZARRAK 2014KO MAIATZAREN 27AN
GOIZEKO 8:30EAN EGINDAKO OHIKO BILKURAKO AKTA**

BERTARATUAK:

Alkatea: Mertxe Aizpurua Arzallus.

Zinegotziak: Alaitz Aizpurua Labaka eta Jone Urdanpilleta Urdanpilleta.

Idazkaria: Nagore Sarasola Otermin.

Ezinetorria adierazi dute: Jose Maria Rivadeneyra Siciliak eta Josu Portu Alzagak.

1.- AURREKO BILKURAKO AKTAREN ONESPENA: 2014/04/29KO OHIKO BILKURA.

Batzarkideek, 2014ko apirilaren 29ko bilkurako akta aho batez onartu dute.

2.- KARMELE URDAMPILLETA URDAMPILLETA ANDREARI, ZUBIETAKO ETXEBERRI-TXIKI ETXEAN, TEILATUA ALTXA DEN LEKUAN ERAIKI DITUEN GELEN LEHEN ERABILERA BAIMENA EMATEA.

Esp. Zenbakia: HZ.04/2013-0041

KARMELE URDAMPILLETA URDAMPILLETA andreak, Zubietako Etxeberri-txiki (Zubieta 16) etxean, teilatua altxa den lekuan eraiki dituen gelen lehen erabilera baimena eskatzen du.

AURREKARIAK

Tokiko Gobernu Batzarrak, 2013ko apirilaren 16an eginiko bilkuran, zera erabaki zuen: Zubietako Etxeberri-txiki (Zubieta 16) etxean, teilatua altxa den lekuan gelak eraikitzeke udal baimena ematea.

LEHEN ERABILERA BAIMENA

Orain berriz, obra amaierako dokumentazio aurkeztearekin batera eraikitako gelen lehen erabilera baimena eskatu du.

Udal arkitektoak aurkeztutako dokumentazioa aztertu eta dagokion ikuskapen bisitaldia egin ostean, 2014ko maiatzaren 19an, Aldeko txostena eman du.

Eskaria kontutan hartuz eta udal arkitektoaren txostena irakurri ondoren, Tokiko Gobernu Batzarrak honako erabakia hartu du gehiengoz, Mertxe Aizpurua eta Alaitz Aizpurua alde bozkatu dute eta Jone Urdanpilleta abstenitu egin da 30/1992 Legeko 28. artikulua baitan:



Usurbilgo Udala



ERABAKIA

LEHENDABIZI: KARMELE URDAMPILLETA URDAMPILLETA andereari, Zubietako Etxeberri-txiki (Zubieta 16) etxean, teilatua altxa den lekuan eraiki dituen gelen lehen erabilera baimena ematea.

BIGARRENA: Interesatua ondokoaz ohartaraztea: baimen honek ez du Etxeberri-txiki etxean bi etxebizitza ezartzea ahalbidetzen.

HIRUGARRENA: Erabaki honen berri interesatuari eta Kontuhartzaileari ematea.

3.- MIREN AYESTARAN REZOLA ANDREARI, AGINAGAN ERABERRITU DUEN BORDA BASERRIAREN LEHEN ERABILERA BAIMENA EMATEA.

Esp. Zenbakia: HZ.04/2012-0388

MIREN AYESTARAN REZOLA andereak, Aginagan eraberritutako Borda baserriaren (Aginaga 26 B) lehen erabilera baimena eskatzen du.

AURREKARIAK

Tokiko Gobernu Batzarrak, 2009ko irailaren 8an eginiko bilkuran, zera erabaki zuen: Borda baserria eraberritzeko udal baimena ematea.

2012ko ekainaren 13an MIREN AYESTARAN REZOLA andereak onartutako proiektuarekiko zenbait aldaketa burutzeko baimena eskatu zuen. Udal arkitektoak aldeko txostena eman ostean, obren zuinketa akta 2013ko martxoaren 22an izenpetu zen.

LEHEN ERABILERA BAIMENA

Orain berriz, obra amaierako dokumentazio aurkeztearekin batera eraberritutako baserriaren lehen erabilera baimena eskatu du.

Udal arkitektoak aurkeztutako dokumentazioa aztertu eta dagokion ikuskapen bisitaldia egin ostean, 2014ko maiatzaren 19an, Aldeko txostena eman du. Hitzez hitz honela dio:

BULEGO TEKNIKOA
Udal Teknikariak Alkate andreari
OBRA NAGUSIAK
AGINAGA AUZOKO BORDA BASERRIA BERRERAKITZE OBREN
LEHEN ERABIERA ESKAERARI TXOSTENA

KOKAPENA: Borda Baserria, Aginaga, Usurbil
ESKAERA DATA; 2014ko martxoaren 21a.



Usurbilgo Udala

ESPEDIENTE ZENBAKIA: HZ04/2008-0402
OBRA AMAIERAKO PEM: 147.563,03EURO.

1. AURREKARIAK

- 2008ko abuztuaren 8an NORTE GALEGO S.L.-k Borda baserria berreraikitzeko Obra baimena eskatu zuen, Oinarrizko Proiektua aurkeztearekin batera.
- 2008ko abenduaren 29an interesatuak jabego erregistroko ziurtagiria aurkeztu zuen.
- 2009ko otsailaren 18an udal arkitektoak txostena idatzi zuen eta otsailaren 24an Foru Aldundiko Nekazaritza Departamentuari txostena eskatu zitzaion.
- 2009ko uztailaren 7an Alkatearen 2009/0641 Dekretua birgaitze proiektua jendaurrean jarri.
- 2009ko uztailaren 14an GAO-ra bidali zen.
- 2009ko uztailaren 17an Foru Aldundiko Nekazaritza Departamentuaren txostena, informatzea beraiei ez dagokiela esanez.
- 2009ko irailaren 8an Tokiko Gobernu Batzarraren erabakia, baserria birgaitzeko udal baimena emanez.
- 2012ko ekainaren 13an Miren Ayestaran-ek onartutako proiektuarekiko aldaketak aurkeztu ditu, udalak onar ditzan.
- 2012ko abuztuaren 1ean interesatuarekin bildu da udal arkitektoa.
- 2012ko abuztuaren 1ean udal arkitektoaren txostena.
- 2012ko abuztuaren 12an interesatuak Exekuzio proiektua aurkeztu du.
- 2013ko otsailaren 8an interesatuak dokumentazio osagarria aurkeztu du.
- 2013ko martxoaren 4an interesatuaren arkitektoak zuzendutako planoak aurkeztu ditu emailaz.
- 2013ko otsailaren 5ean Oier Otxoantezana udal arkitekto aholkularia izandakoaren txostena.
- 2013ko martxoaren 5ean Jone Miner udal arkitektoaren ALDEKO txostena honako baldintzekin:

“**HAMABOST EGUNEKO EPEAN** honakoa aurkeztu beharko da:

- Azken aldaketak jasotzen dituzten eta mailez jaso diren planoak eta aldaketa hauen ondorioz, Exekuzio Proiektuan oraingo aldaketetara egokitu behar diren atalak (hala nola planoak, EKT-aren justifikazioa, e.a.) dagokion teknikariak izenpetuta eta dagokion elkargoak ikus-onetsita.
 - Telekomunikazio azpiegiturei buruzko proiektua dagokion teknikariak izenpetuta eta dagokion elkargoak ikus-onetsita.
 - Kanpo urbanizazio lanak zehazten dituen dokumentazioa (planoak, aurrekontua, e.a.) dagokion teknikariak izenpetuta eta dagokion elkargoak ikus-onetsita.
 - Obrei hasera emateko ezinbestean **ZUINKETA AKTA** izenpetu beharko da.
 - Edonola, obren egikaritzan ere EKT, AASS-etako egoitzazko eraikuntzen ordenantzak eta indarrean den gainontzeko araudia bete beharko da. “
- 2013ko martxoaren 5ean Jone Miner udal arkitektoaren ALDEKO txostena honako baldintzekin:
 - 2013-03-07, 2013-03-15, 2013-03-22: Interesatuak dokumentazioa aurkeztu du.
 - 2013-03-22: udal arkitektoaren ALDEKO txostena aurkeztu dokumentazioari.
 - 2013-03-22: Zuinketa akta izenpetzea.



Usurbilgo Udala

- 2014-01-14: Interesatuaren idatzia lehen erabilera biamena eskatuz.
- 2014-01-20; interesatuak dokumentazio gehigarria aurkeztu du.
- 2014-02-14: Udal arkitektoak bertaratzea egin du.
- 2014-02-17: Udal arkitektoak txostena idatzi du honako baldintzak ezarriz:
 - “ **URBANIZAZIO GEHIGARRIAREN LANAK:** Bertaratzean ikusi da kanpo urbanizazioa amaitu gabe dagoela eta ez dela, interesatuak 2013ko martxoaren 22an aurkeztu eta udalak onartutako hormigoizko lauza egikaritu. Ezinbestean amaitu beharko dira urbanizazio gehigarriaren lanak obra baimenean onartutakoaren arabera. eta beti ere, Arau Subsidiarioek ezarritakoa beteaz.
 - **PROPANO DEPOSITUAREN BAIMENA:** Bertaratzean ikusi da eraikinaren aurrekaldean propano depositua ezarri da, gas instalakuntzari dagokiona. Jarduera sailkatuaren aurretiazko komunikazioa egin beharko da, horretarako dokumentazioa eta aitorpena, dagokion eskaera imprimakiarekin batera aurkeztuaz.
 - **OBRA AMAIERAKO INSTALAKUNTZA DOKUMENTAZIOA:** Obra amaierako instalakuntza planua aurkeztu beharko da, propano deposituaren eta fosa septikoaren kokapena jasotzen duena. Horrekin batera, bai fosa septikoaren eta baita eguzki plaken instalakuntza ziurtagiriak aurkeztu beharko dira.
 - **LURSAILAREN ITXITURAK:** Ohartarazten da, lursailaren itxiturak berariazko baimena izan beharko duela. Arau Subsidiarioen 16. artikulua ezarritako bete beharko da.
 - **SUTEEN AURKAKO BABESA:** Eraikinaren sotoa garajeak osatzen du. Bertaratzean ikusi da extintoreak jarri direla. DB-SI-ren arabera, etxebizitza eta bere aparkalekuaren artean EI 60 eta EI 90 babesa egon behar du, hurrenez hurren. Horrekin batera, etxebizitza eta aparkalekuaren komunikazio atea EI 45-C5 izan beharko du. Orohar EKT-DB-SI atalak ezarritako baldintzak bete eta mantendu beharko dira. ”
- 2014-03-21: Interesatuak dokumentazio gehigarria aurkeztu du.

Espediente erlazionatua:

HZ13/2008-0022; Aginagako Borda Baserria eraberritzeko aukeraz galdera urbanistikoa

2. TXOSTENA

Francisco Javier Rodriguez Perez jaunak Borda baserriaren eraberritze lanen obra amaierako dokumentazio gehigarria aurkeztu du udalak 2014ko otsailaren 19an jakinarazitako eskaerari erantzunaz, lehen okupazio baimena lortzeko. Aurkeztu dokumentazioa da: justifikazio memoria teknikari gaituak izenpetua eta Elkargo Ofizialak ikus-onetsia, urbanizazio planua teknikari gaituak izenpetua eta Elkargo Ofizialak ikus-onetsia, fosa septikoari buruzko informazioa, egikaritu diren instalakuntzen planua eta indarrean den araudira egokitzen direla ziurtagiria teknikari gaituak izenpetua eta Elkargo Ofizialak ikus-onetsia, propano deposituaren ziurtagiriak eta abiarazteko jakinarazpena, instalazio termikoaren ziurtagiriak eta suteen aurkako instalakuntzaren ziurtagiriak.

Dokumentazioa aurkeztu eta aztertu ostean, honakoa esan daiteke:

- URBANIZAZIO GEHIGARRIAREN LANAK: Justifikazioa aurkeztu da.
- PROPANO DEPOSITUAREN BAIMENA: Instalakuntzaren ziurtagiriak eta Eusko Jaurlaritzako abiarazte akta aurkeztu dira. Posible da Borda baserriaren eraberritzearen lehen erabilerarekin batera legeztatzea.
- OBRA AMAIERAKO INSTALAKUNTZA DOKUMENTAZIOA: Bai planuak eta baita ziurtagiria ere aurkeztu dira.



Usurbilgo Udala



- **SUTEEN AURKAKO BABESA:** Justifikazioa aurkeztu da teknikari gaituak izenpetua eta dagokion Elkargo Ofizialak ikus-onetsia. Extintoreen eta atearen ziurtagiriak aurkeztu dira.

ONDORIOAK

Goian aipatutakoak ikusita, Borda baserriaren eraberritze lehen erabilera baimen eskaerari ALDEKO txostena idazten zaio.

Ohartarazten da itxiturak egikaritzeko/legeztatze dagokion baimena jaso beharko dela.

Zure ezagupenerako eta bere ondorio egokietarako adierazten zaizuna.

Usurbilen, 2014o maiatzaren 19an.
UDAL ARKITEKTOA
Izta.: Ekhiñe Egiguren Azkune

Eskaria kontutan hartuz eta udal arkitektoaren txostena irakurri ondoren, Tokiko Gobernu Batzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

E R A B A K I A

LEHENDABIZI: MIREN AYESTARAN REZOLA andereari, Aginagan eraberritu duen Borda baserriaren (Aginaga 26 B) lehen erabilera baimena ematea.

BIGARRENA: Itxitura egikaritzeko/legeztatze dagokion baimena jaso beharko dela ohartaraztea interesatua.

HIRUGARRENA: Erabaki honen berri interesatuari eta Kontuhartzaileari ematea.

4.- SUSTAPEN EKONOMIKO ETA ENPLEGUA ALORREAN ESKUALDE MAILAKO PROTOKOLO OROKORREKO LANKIDETZAREN JARRAIPEN PROPOSAMENA ONARTZEA.

Alaitz Aizpuruak adierazi du Lanbideko enplegu planeko diru-laguntzak onartu direla azkenean. Hauek eskualde mailan ematen direla zehaztu du eta hori kudeatzeko Andoain dagoela izendatuta, Garapen agentziaren elkartea sortu bitartean.

“Espediente zenbakia: HE 06/2014-21

Kontuan hartuz Sustapen Ekonomikoa eta Enplegua alorrean bailara osatzen duten Andoain, Astigarraga, Hernani, Lasarte-Oria, Urnieta eta Usurbilgo udaletxeek 2012.05.29ko datarekin sinatutako protokolo orokorreko lankidetzaren, 2013ko maiatzean urtebetez luzatu zena 2014ko maiatzaren 29a bitartean.



Usurbilgo Udala



Ikusirik Lanbidek Andoaingo Udalari diru-laguntza eman diola, Donostia Mendebaldea eskualdea osatzen duten udalerriak ordezkatzuz, enplegua sustatzeko toki ekintzetarako laguntza deialdiaren babesean, 2013/10/18ko EHAA-n argitaratu zen Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren Administrazio kontseiluaren 2013ko Urriaren 8ko erabakiaren arabera.

Ikusirik diru laguntza horren babesean onartutako proiektuak gauzatzeko ezarritako azken eguna 2015eko maiatzaren 31a ezartzen dela.

Kontuan izanik aipaturiko udaletxeok elkarlanean jarraitzeko sumatzen dugun beharra oraingo esparruaren baitan edo eta bertatik ondoriozta daitekeen beste esparru edo antolaketa bat sortzen den bitartean,

Hori honela, Sustapen Ekonomikoa eta Enplegua alorrean eskualde mailako protokolo orokorreko lankidetzaren jarraipena proposatzen da 2015eko maiatzaren 31 bitartean, kontutan izanik 2013ko maiatzaren 28ko Udalbatzako akordioak Tokiko Gobernu Batzordearen gain delegatu zuela hurrengo luzapen edo/eta jarraipenei dagokien akordioa hartzeko ahalmena.

Hau guztia horrela, Tokiko Gobernu Batzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

ERABAKIA

Lehenengoa: Onartzea Sustapen Ekonomikoa eta Enplegua alorrean eskualde mailako protokolo orokorreko lankidetzaren jarraipena, beste urtebetez, 2015eko maiatzaren 31 arte Donostialdea bailara osatzen duten udaletxeekin, hau da, Lasarte-Oria, Andoain, Urnieta, Hernani eta Astigarraga, gaur egunean protokoloan jasotzen den moduan. Protokoloa bertan behera gera daiteke, beti ere, sinatzen dutenen arteko norbaitek salatuko balu.

Bigarrena: Akordio honen berri Lasarte-Oria, Andoain, Urnieta, Hernani eta Astigarragako udalei ematea, jasota gera dadin.

5.- 2014. URTEAN GIZARTE ZERBITZUEN ARLOAN EGITASMOAK BURUTZEKO DIRU-LAGUNTZA KOPURUAK BEHIN BETIKOZ ONARTZEA.

Esp. zenb.: GZ.42/2014-002

Ikusirik

2014ko otsailaren 3an, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, 2014. urtean Gizarte Zerbitzuen arloan egitasmoak burutzeko diru-laguntzen oinarriak argitaratu ziren, eskaerak aurkezteko hogeit eguneko epea emanez, hau 2014ko otsailaren 26an bukatu zelarik.

Epea amaitu ondoren, guztira 11 diru-laguntza eskaera jaso ziren.



Usurbilgo Udala



Hori horrela, 2014ko martxoaren 20an egindako Osasun eta Gizarte Zerbitzuak batzorde informatiboan, 2014. urtean Gizarte Zerbitzuen arloan egitasmoak burutzeko diru-laguntzen banaketa proposamenaren berri eman zen.

Ondoren, 2014ko apirilaren 10eko bilkuran Diru laguntzen Batzorde Orokorrak, Osasun eta Gizarte Zerbitzuetako teknikariaren txostena kontutan harturik, ebazpen-proposamena egin zuen eta interesatuei 10 eguneko epea eman zitzaien alegazioak aurkezteko.

Epe horretan ez da alegaziorik aurkeztu

Eta kontutan harturik

- Azaroaren 17ko 38/2003 Legea, diru-laguntzak arautzen dituen.
- Diru-laguntzak arautzeko udal ordenantza (GAO, 2008-07-01).
- 2014an Gizarte Zerbitzuen Arloan egitasmoak garatzeko diru-laguntza oinarriak (GAO, 2014-02-03)

Tokiko Gobernu Batzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

ERABAKIA

LEHENA: 2014. urtean Gizarte Zerbitzuen arloan egitasmoak burutzeko diru-laguntza kopuru hauek onartzea.

TALDEAREN IZENA	ONARTUTAKO LAGUNTZA % 100	1. ORDAINKETA %50
ACABE	820,25 €	410,12 €
ADENGI	492,15 €	246,07 €
AGIFES	853,06 €	426,53 €
ALCER	800,00 €	400,00 €
ATECE	754,63 €	377,31 €
ATZEGI	1.640,50 €	820,25 €
BEGISARE	820,25 €	410,12 €
GIPUZKOAKO ITXAROPEN TELEFONOA	885,87 €	442,93 €
IZAN FUNDAZIOA	1.181,16 €	590,58 €
ORTZADAR	754,63 €	377,31 €
BIKARTE	1.115,54 €	557,77 €
Guztira	10.118,04 €	5.058,99 €



Usurbilgo Udala

BIGARRENA: Diru- laguntzen lehen ordainketa egitea, %50a.

HIRUGARRENA: Gainerako %50a, eman deneko diru laguntza justifikatu ondoren ordainduko da. Diru laguntza justifikatzeko, entitate edo pertsona onuradunak jarraian zehazten den dokumentazioa aurkeztu beharko du, 2015eko urtarrilaren 15a baino lehenago:

a) Burutu den ekintza bakoitzeko V Eranskina, ahalik eta zehatzen.

b) Gastuaren egiaztagiri originalak edo fotokopia konpultsatuak. Egiaztagiri hauek, ezinbestez, diru-laguntza eman zeneko helburu eta ekintzei dagozkien gastuei buruzkoak beharko dira izan. Ez dira onartuko beste helburu batzuetarako egindako gastuen egiaztagiriak. Justifikazioa egiterako orduan kontuan hartuko da diru-laguntza ematerako orduan oinarritzat hartu zen gastuaren aurrekontua, eta benetako gastua. Proporzionaltasunaren araua aplikatuko da, beti ere emandako diru-laguntzaren mugaraino.

Fakturretan hauxe agertuko da:

- Erakundearen edo/ta elkartearen identifikazioa.
- Hornitzailearen identifikazioa.
- Fakturaren data.
- Jarduera
- Zerbitzuaren deskripzioa.

Diru-laguntzaren bidez egiten den jarduera antolatzeagatik ez da diru-saririk jasoko.

c) Justifikazioari honakoak erantsi beharko zaizkio: azterketa, programa, publikazio eta horma-irudi iragarleen bi ale. Halaber, jardueraren inguruan sorturiko edozein eratako dokumentazio grafiko zein idatzizko Usurbilgo Udala agertu beharko da jardueraren babesle moduan egingo den publizitate guztian.

d) 2014. urteari dagokion memoria: bertan zehaztuko dira burututako ekintza guztiak eta laburpen ekonomikoa.

e) Diru-sarreraren egiaztagiri originalak edo fotokopia konpultsatuak.

f) Udalak diru-laguntza ekintza jakin baterako izendatzen badu, eta urtean zehar hasierako asmoak beste ekintza batekin ordezkatu nahi badira, udalari asmoaren berri eman behar zaio eta honen oniritzia jaso.

g) Ekintzak egin ahala justifikatu ahal izango dira.

LAUGARRENA: Emakume eta gizonen arteko berdintasuna bermatuz bideratuko dira egitasmo guztiak.

BOSTGARRENA: Hondakinei dagokienez, Usurbilgo Udalean Hiri Hondakinak bildu eta tratatzeko udal Ordenantzak eta udalak zehaztutako protokoloak jasotakoak beteko dira.



Usurbilgo Udala



SEIGARRENA: Aurrikusitako gastua baino txikiagoa egiten bada, dirua itzuli egin beharko da.

ZAZPIGARRENA: Udalak diruz laguntzen dituen ekintzak usurbildar guztiei irekiak izango dira, herritarren artean inolako bereizketarik egin gabe.

ZORTZIGARRENA: Diru-laguntza ordaintzerakoan udalarekin zorra dagoen kasuetan, ez da diru-laguntzarik emango.

BEDERATZIGARRENA: Jasotako diru-laguntza zuritzeko azken eguna 2015ko urtarrilaren 15 izango da.

HAMARGARRENA: Diru-laguntzak aurrekontu-partida honen kargura joango dira: 1.8000.481.313.90.03.2014. **(A 5/2014)**

HAMAIKAGARRENA: Intereresatuei akordioaren berri ematea.

HAMABIGARRENA: Kontu-hartzaitzari akordioaren berri ematea, ordainketa egiteko orria erantsiz.

6.- AISIALDIKO BEGIRALE EDO ZUZENDARI IKASTAROAK EGIN DITUZTENENTZAT DIRU-LAGUNTZA OINARRIAK ONARTZEA.

Esp.zk: 01/2014-134

Ikusirik

Usurbilgo Udaleko Euskararen Ordenantzak bere 39. artikuluan dio Udalak neurri egokiak hartuko dituela euskara gizarte esparru guztietan erabil dadin eta, oro har, gizarte bizitzan euskararen presentzia gehi dadin.

Aisialdia gizarte bizitza horretako zati bat da eta gure gizartean gero eta garrantzia handiagoa duena gainera.

Aisialdiko begirale eta zuzendariak berariaz eta era egokian prestatua egotea garrantzitsua ikusten du udalak. Are gehiago, prestakuntza hori euskaraz jasotzea garrantzitsua iruditzen zaio udalari.

Horrexegatik hain zuzen ere, aurrekontu partida bat ezarri du 2013-2014 ikasturtean zehar aisialdiko begirale edo zuzendari ikasketak egin dituztenentzako biztanleei bekak emateko.

Bide honetatik, Usurbilgo Udalak aisialdiko begirale edo zuzendari ikastaroa egin dutenentzat diru-laguntzak bideratzeko diru-laguntza oinarriak prestatu ditu.

Hori horrela, 2014ko maiatzaren 12ko Kultura, Euskara eta Gazteria Batzorde Informatzailean diru-laguntza oinarrien berri eman zen.

Eta kontuan harturik



Usurbilgo Udala



- Azaroaren 17ko 38/2003 Legea, diru laguntzak arautzen dituena.
- Diru laguntzak arautzeko udal ordenantzaren aldaketa (GAO, 2008/07/01).

Tokiko Gobernu Batzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

ERABAKIA

Lehenengoa: aisialdiko begirale edo zuzendari ikastaroak egin dituztenentzat dirulaguntza oinarriak onartzea, ebazpen-proposamen honi eranstean zaizkiolarik.

Bigarrena: Dirulaguntzaren zenbateko osoak ez du gaindituko ondorengo partidetan azaltzen diren diru izendapenak: 1 4400 480 455 10 01 2014 (A 266/2014)

Hirugarrena: Oinarrien iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Laugarrena: interesatuei epe hau ematea eskaerak aurkez ditzaten, dagokion dokumentazio guztiarekin: 2014ko ekainaren 16tik ekainaren 27ra bitartean (biak barne)

Bosgarrena: Oinarrien berri kontuhartzaileari emango zaio.

7.- EUSKARA IKASLEENTZAT DIRU-LAGUNTZA OINARRIAK ONARTZEA.

Esp.zk.: KE.01/2014-0132

Ikusirik

Usurbilgo Udaleko Euskararen Ordenantzak bere 39. artikuluan dio Udalak neurri egokiak hartuko dituela euskara gizarte esparru guztietan erabil dadin eta, oro har, gizarte bizitzan euskararen presentzia gehi dadin. Horretarako, Ordenantzaren arabera, bitartekoetako bat euskararen zabalpen funtzionala da, alegia, euskaldunen kopurua handitzea eta hobeagotzea, euskara ez dakitenek ikasi dezaten bideak jarri, eta dakitenek alfabetatu daitezzen bitarteko egokiak bideratzea.

Usurbilgo Udalak oso garrantzitsutzat irizten dio helduen euskalduntzean eta alfabetatzean eragiteari. Horrexegatik hain zuzen ere, aurrekontu partida bat ezarri du 2013-2014 ikasturtean zehar euskalduntze ikastaroetara joan diren Usurbilgo biztanleei beka emateko.

Hori horrela, 2014ko maiatzaren 12ko Kultura, Euskara eta Gazteria Batzorde Informatzailean diru-laguntza oinarrien berri eman zen.

Eta kontuan harturik

- Azaroaren 17ko 38/2003 Legea, diru laguntzak arautzen dituena.
- Diru laguntzak arautzeko udal ordenantzaren aldaketa (GAO, 2008/07/01).

Tokiko Gobernu Batzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

ERABAKIA



Usurbilgo Udala



Lehenengoa: euskara ikasleentzat diru-laguntza oinarriak onartzea, ebazpen-proposamen honi eranstean zaizkiolarik.

Bigarrena: Dirulaguntzaren zenbateko osoak ez du gaindituko ondorengo partidetan azaltzen diren diru izendapenak: 1.4200.480.455.10.03 2014 (A 264/2014)

Hirugarrena: Oinarrien iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Laugarrena: interesatuei epe hau ematea eskaerak aurkez ditzaten, dagokion dokumentazio guztiarekin: 2014ko ekainaren 25etik uztailaren 9ra bitartean (biak barne)

Bosgarrena: Oinarrien berri kontuhartzaileari emango zaio.

8.- BEHAR EKONOMIKO BEREZIAK DITUZTENENTZAKO EUSKARA IKASTEKO DIRU-LAGUNTZA OINARRIAK ONARTZEA.

Esp.zk: 01/2014-0133

Ikusirik

Usurbilgo Udalari garrantzitsua iruditzen zaio herritarrek euskara ikastea. Gero eta gehiago dira Euskaltegiko matrikula ordaintzeko arazo bereziak dituzten herritarrak. Bide honetatik, behar ekonomiko bereziak dituzten herritarrei euskara ikastea erraztu nahi zaie.

Horrexegatik hain zuzen ere, Usurbilgo Udalak aurrekontu partida bat ezarri du euskara ikasteko behar ekonomiko bereziak dituzten herritarrei diru-laguntzak aurreratzeko.

Hori horrela, 2014ko maiatzaren 12ko Kultura, Euskara eta Gazteria Batzorde Informatzailean diru-laguntza oinarrien berri eman zen.

Eta kontuan harturik

- Azaroaren 17ko 38/2003 Legea, diru-laguntzak arautzen dituena.
- Diru-laguntzak arautzeko udal ordenantzaren aldaketa (GAO, 2008/07/01).

Tokiko Gobernu Batzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

ERABAKIA

Lehenengoa: Behar ekonomiko bereziak dituzten usurbildarrei euskara ikasteko matrikularen diru-kostua aurreratzeko oinarriak onartzea, ebazpen-proposamen honi eranstean zaizkiolarik.

Bigarrena: Diru-laguntzaren zenbateko osoak ez du gaindituko ondorengo partidetan azaltzen diren diru izendapenak: 1.4200.480.455.10.03 2014 (A265/2014)

Hirugarrena: Oinarrien iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.



Usurbilgo Udala



Laugarrena: Oinarrien berri kontuhartzaileari emango zaio.

Eta eztabaidarako gaiak amaiturik, Alkate andreak batzaraldia bukatutzat eman du, goizeko 08:55an bilera agiri hau jaso da, batzordekideek izenpetuz eta nik, idazkariak, ziurtatuz.